# Fortuna handien gaineko aldi baterako elkartasun zerga 2025

# Fortuna handien gaineko aldi baterako elkartasun zerga

1. Sarrera
   - 1.1 Ondarearen gaineko zergarekin alderaketa
   - 1.2 Zein dago aitortzera behartuta?
   - 1.3 Zeri deritzogu ohiko egoitza?
   - 1.4 Zer aitortu behar da?
   - 1.5 Zer ez da aitortu behar?
   - 1.6 Zein da titularra?
   - 1.7 Nola aitortzen da?
   - 1.8 Noiz eta non aurkezten da aitorpena? Nola ordaintzen da?
2. Zerga oinarria
3. Nola baloratzen dira ondasunak, eskubideak eta zorrak?
4. Oinarri likidagarria
5. Kuota osoa
6. Kuota likidoa
   - 6.1 Atzerrian ordaindutako zergen kenkaria
   - 6.2 Ondarearen gaineko zergarengatik ordaindu beharreko kuotaren kenkaria

# 1. Sarrera

## 1.1 Ondarearen gaineko zergarekin alderaketa

Fortuna handien gaineko aldi baterako elkartasun zergaren elementu nagusiek zorrotz jarraitzen diote ondarearen gaineko zergaren erregulazioari. Hala gertatzen da aplikazio eremuarekin, salbuespenekin, zergadunarekin, zerga oinarriarekin, oinarri likidagarriarekin eta sortzapenarekin.

Bi zergen arteko alde nagusia ondorengo alderdi hauetan ageri da:

- **Zerga egitatea**: fortuna handien gaineko aldi baterako elkartasun zergak 3.000.000,00 eurotik gorako ondare garbiak bakarrik zergapetzen ditu, baldin eta horien zerga kuotaren emaitza ordaintzekoa bada.
- **Kuota osoa**: bai karga eskala bai kuota osoaren muga edo "ezkutu fiskala" desberdinak dira bi zergetarako, eta, beraz, fortuna handien gaineko aldi baterako elkartasun zergaren kuota osoa ondarearen gainko zergarena baino handiagoa da ondare garbi gehiagoko zergadunentzat. Horrek, zerga berriaren izaera osagarria uzten du agerian.
- **Kenkariak**: fortuna handien gaineko aldi baterako zergan beste kenkari bat gehitzen da, ondarearen gaineko zergan zergadunei dagokien kuota kendu ahal izateko, ondasun eta eskubide berberak bi aldiz zergapetu ez daitezen.

Gidaliburu honetan bi zergen arteko desberdintasun horiek aztertuko ditugu; beraz, bat datozen alderdiei dagokienez, ondarearen gaineko zergari buruzko gidaliburuan aipatutakoa ikusi beharko da.

## 1.2 Zein dago aitortzera behartuta?

Ondorengo egoera hauetako batean aurkitzen diren pertsona fisikoek edo testamentu ahalordea erabili gabe duten herentziek[96] aurkeztu beharko dute fortuna handien gaineko aldi baterako elkatasun zergaren autolikidazioa:

- Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga dela eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren zergadun direnak. Kasu haueta, obligazioa pertsonala izango da (hau da, ondare garbi osoagatik exijituko zaie zerga, zergapetu beharreko ondare elementuak zein lurraldetan dauden kontuan hartu gabe).
- Lurralde espainiarrean egoiliar ez direnak, lurralde espainiarrean kokatutako ondasun eta eskubideen titular direnean, baldin eta ondasun eta eskubide horien baliorik handiena euskal lurraldean egonik, Gipuzkoako Lurralde Historikoan kokatutakoen balioa beste lurralde historikoetako bakoitzean kokatutakoena baino handiagoa bada. Kasu hauetan, obligazioa erreala izango da (hau da, lurralde espainiarrean dauden ondasun eta eskubideengatik soilik exijituko zaie zerga). Dena den, lurralde espainiarren egoiliar ez direnak baina azken egoitza Gipuzkoan izan dutenean, Gipuzkoan tributatzea hautatu dezakete obligazio pertsonalaren arabera. Hautu hau Gipuzkoako egoiliar izateari uzten zaion lehenengo ekitaldian autolikidazioa aurkeztuz egin beharko da.
- Espainiako estatuak atzerrian dituen ordezkari eta funtzionarioak, zein atzerriko organismo edo estatuek Espainian dituztenak. Kasu hauetan, obligazioa pertsonala zein erreala izango da, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 3/2014 Foru Arauak zergadun horientzat xedatutakoari jarraituz.

**ERNE:** zerga honen zergadunak ez badira egoiliar Europar Batasuneko beste estatu kide batean, 2026ko uztailaren 2a baino lehen, behartuta daude egoitza Gipuzkoako Lurralde Historikoan duen pertsona fisiko edo juridiko bat izendatzera, zerga honekiko betebeharretan jaien ordezkari jardun dezan Zerga Administrazioaren aurrean. Izendapen hori Zerga Administrazioari komunikatu behar zaio, ordezkariaren onespen espresua erantsita. Europar Batasunetik kanpokoak izanik Europako Esparru Ekonomikokoak diren estatuen kasuan, ez da izendapen hori eskatuko baldin eta haietan zerga arloko informazio trukean edo zerga bilketan elkarri laguntzeko araudia onartuta badago. Betebehar hori bera zergadun egoiliarrek ere izango dute baldin eta, zerga egitatea behin gertatuta eta autolikidazioa aurkeztu baino lehen, Espainia uzten badute Europar Batasunetik kanpoko hirugarren estatu batera edo zerga arloko informazio trukean edo zerga-bilketan elkarri laguntzeko araudia onartua duen Europako Esparru Ekonomikotik kanpoko hirugarren herrialde batera joateko, salbu eta 2026ko uztailaren 2a baino lehen itzultzen badira.

Aipatutako egoeretako batean dauden zergadunek zerga honen aitorpena aurkeztu beharko dute, baldin eta, gainera, bi baldintza hauek betetzen badituzte:

- 3.000.000,00 eurotik gorako ondare garbia izatea. Ondorio horietarako, zergadunaren ondare garbia haren titulartasunpean dauden ondasun eta eskubide ekonomiko guztiek eratuko dute, ondasun eta eskubide horien balioa murrizten duten zamak eta kargak gutxituta eta zergadunak bere gain dituen zorrak eta obligazio pertsonalak kenduta.
- Zerga honen autolikidazioaren emaitza ordaintzekoa izatea.

## 1.3 Zeri deritzogu ohiko egoitza?

Irizpide hauek aplikatuz ulertuko da lurralde espainiarrean bizi den pertsona fisiko batek ohiko egoitza Gipuzkoan duela:

- **Egonaldia**: Euskal Autonomia Erkidegoan urteko egun gehienak egonik, Gipuzkoan ematen duen egun kopurua handiagoa denean Euskal Autonomia Erkidegoko beste bi lurraldeetan baino.

  Ondorengo kasuan, adibidez, pertsona fisiko bat herri hauetan bizi izan da 2025. urtean, denbora tarte desberdinetan:

| Herria | Hilak | Egunak |
|---|---|---|
| Madril | 5 | 152 |
| Donostia | 4 | 121 |
| Bilbo | 3 | 92 |

  Nahiz eta Madrilen egun gehiagotan bizi izan (152), Euskal Autonomia Erkidegoan egondakoak (213) batuz gero, ikus daiteke zergadun horri Euskal Autonomia Erkidegoko araudia aplikatu behar zaiola. Ondoren, ikus dezakegunez, Gipuzkoan eman du denbora gehiena (121 egun, Bizkaiako 92 egunen aldean). Beraz, zergadun horrek Donostian izango du egoitza, eta Gipuzkoako Foru Aldundiari ordainduko dio zerga.

96 Testamentu ahalordea erabili gabe duten herentzien kasuan, azaroaren 14ko 4/2016 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zerga sistema Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legera egokitzekoak, ezartzen dituen aurreikuspenak hartu beharko dira kontuan.

– **Interes gune nagusiaren irizpidea**: interesgune nagusia Gipuzkoan duenean, hau da, etekinen zatirik handiena Gipuzkoan lortu duenean (lana, kapital higiezina, jarduera ekonomikoak, ondasun higiezinen ondare irabaziak…).

  Ondorengo kasuan, adibidez, pertsona fisiko bat herri hauetan bizi izan da 2025. urtean, denbora tarte desberdinetan:

| Lurraldea | Egunak |
|---|---|
| Madril | 151 |
| Gipuzkoa | 107 |
| Bizkaia | 107 |

  Oraingoan, lehen irizpidea (egonaldia) ez da nahikoa ohiko egoitza zehazteko, nahiz eta jakin badakigu egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan dagoela. Aztertu behar dugu non duen interesgune nagusia (Bizkaian ala Gipuzkoan), zein foru ogasunetan ordainduko duen zerga zehazteko.

– **Azken egoitzaren irizpidea**: pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan aitortutako azken egoitza Gipuzkoan kokatuta dagoenean.

Lehen irizpidearen arabera ohiko egoitza inolako lurraldetan (komuna edo foru lurraldea) zehaztea ezin izan denean erabiliko da bigarren irizpidea. Lehen eta bigarren irizpideen arabera ohiko egoitza inolako lurraldetan (komuna edo foru lurraldea) zehaztea ezin izan derean erabiliko da hirugarren irizpidea.

Gainera, **ohiko egoitzaren ustezko bi kasu** finkatzen dira, lotura ekonomikoan eta lotura familiarrean oinarrituta:

- **Lotura ekonomikoa**

  Ondorengo hiru baldintza hauek betetzen direnean ulertuko da lurralde espainiarrean bizi diren zergadunek egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan dutela:

  · Lurralde espainiarrean bizitzea.

  · Urte naturalaren barruan 183 egun baino gehiagotan lurralde espainiarretik kanpo egotea.

  · Euskal Autonomia Erkidegoan kokatuta egotea haien jarduera enpresarial edo profesional edo interes ekonomikoen gune nagusia.

  Era berean, haien jarduera enpresarial edo profesionalen edo interes ekonomikoen gune nagusia Gipuzkoan kokatuta dagoenean ulertuko da pertsona fisiko horiek lurralde horretan bizi direla.

- **Lotura familiarra**

  Behin pertsona fisiko bat lurralde espainiarrean bizi dela uste ondoren, Gipuzkoan legez banandu gabeko ezkontidea eta haren menpe dauden adingabeko seme-alabak bizi direnean izango du ohiko egoitza lurralde horretan, baldin eta pertsona horrek aurkakoa frogatzen ez badu.

## 1.4 Zer aitortu behar da?

Ondorengo hau aitortu behar du zergadunak:

– Abenduaren 31n bere titulartasunpean dauden ondasun guztiak.

– Abenduaren 31n egozten zaizkion eduki ekonomikoko eskubide guztiak.

## 1.5 Zer ez da aitortu behar?

Zergadunak ez ditu aitortu behar ondarearen gaineko zergan salbuetsita dauden ondasun eta eskubide berberak (ikus ondarearen gaineko zergari dagokion gidaliburuko 1.4 atala).

## 1.6 Zein da titularra?

Ondasunen eta eskubideen titulartasuna ondarearen gaineko zergan bezala zehaztuko da. Beraz:

– Titulartasun juridikoari buruz kasu bakoitzean aplikagarriak diren arauak hartuko dira kontuan, betiere zergadunek aurkeztu edo Administrazioak aurkitutako frogak aintzat harturik. Titulartasun juridikoari buruzko arauak dira, esate baterako, ezkontzaren erregimen ekonomikoa arautzen duten xedapenak, eta familiako kideen artean edo izatezko bikoteko kideen arteko ondare harremanei kasu bakoitzean aplikagarri zaien legeria zibilean jasotakoak.

  **ERNE:** fortuna handien gaineko aldi baterako elkartasun zergaren ondorioetarako, izatezko bikoteak aipatzen diren guztietan, maiatzaren 17ko 2/2003 Legearen arabera eratutakoez gain, beste autonomia erkidego batzuetako, Europar Batasuneko beste estatu batzuetako, Europako Esparru Ekonomikoko edo hirugarren herrialdeetako erregistro publikoetan antzeko moduan eratu eta inskribatutako izatezko bikoteak ere barnean sartzen direla ulertuko da. Orobat, ezkontza bidezko ahaidetasun harremanei buruzko aipamenek izatezko bikotetik eratorritakoak ere hartuko dituzte barne.

– Gertatzen bada ezkontzaren erregimen ekonomikoa edo ondare erregimena arautzen duten xedapenen arabera ondasun edo eskubide bat bi ezkontideena edo izatezko bikoteko bi kideena dela, balioa erdibana egotziko zaie, non eta ez den frogatzen badagoela beste partaidetza kuota bat.

– Ondasun edo eskubideen titulartasuna behar bezala frogatzen ez bada, Zerga Administrazioak erregistro fiskal batean edo izaera publikoko beste batean titular gisa azaltzen dena hartu ahal izango du titulartzat.

– Kargak, zorrak eta betebeharrak aurreko arau eta irizpideei jarraiki egotziko zaizkie zergadunei.

– Onartu gabeko herentzien ondasunak eta eskubideak herentziara deitutakoei eta haien oinordekoei egotziko zaizkie, testamentuko xedapenetan eta legeria zibilean xedatutakoaren arabera.

– Testamentu ahalordea erabili gabe duten herentzietan gozamen eskubiderik badago, aurreko arauak aplikatuko dira gozamendunari. Jabetza soilaren balioari dagokionez, edo inolako gozamendunik ez dagoenean, testamentu ahalordea erabili gabe duten herentziak zergapetuko dira azaroaren 14ko 4/2016 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga sistema Euskal Zuzenbide Zibilaren berezitasunetara egokitzen duenak, II. tituluan ezarritakoaren arabera.

– Ondasun edo eskubideak eskuratu badira kontraprestazioa osorik edo zati batean geroratuta, zergaren arauen arabera ondare elementuak duen balioa eskuratzaileari egotziko zaio osorik, eta eskuratzaileak bere zorren artean sartu beharko du geroratutako kontraprestazioaren zatia. Eskualdatzaileak, bere aldetik, bere ondareko eskubideen artean sartuko du geroratutako kontraprestazioaren zatiari dagokion kreditua.

– Ondasunak jabari-erreserbaz saltzen badira, eta ondasunaren jabetza eskualdatzaileari eskualdatzen ez zaion bitartean, haren eskubidea zergaren sortzapen egunera arte emandako kopuru guztiengatik konputatuko da. Kopuru horiek eskualdatzailearen zorrak izango dira, eta hari egotziko zaio zergaren arauek ondare elementuari ematen dioten balioa.

## 1.7 Nola aitortzen da?

Fortuna handien gaineko aldi baterako elkartasun zergaren aitorpena banaka aurkeztuko da. Hortaz, familia unitate bateko kide izanik ere, zergadun bakoitzak banaka aurkeztu behar du aitorpena, bere ondarea indibidualizatuz.

## 1.8 Noiz eta non aurkezten da aitorpena? Nola ordaintzen da?

Aitorpena aurkezteko **epea** 2026ko apirilaren 7an hasi eta urte bereko uztailaren 2an amaituko da, biak barne.

Zergaren aitorpena **telematikoki** baino ezingo da aurkeztu (internet bidez). Aurkezpen modalitate hori ondorengo hauek erabili ahal izango dute:

– Zergadunak: partikularrak eta enpresariak zein profesional autonomoak.

– Ordezkari profesionalak: aholkulari eta kudeatzaileak.

Urteko fortuna handien gaineko elkartasun zergaren aitorpena internet bidez aurkezteko hurrengo **urratsak** jarraitu beharko dira:

1. **Datuak betetzea**:

   ZergaBidea laguntza programa erabili behar da. Gure webgunean bakarrik eskura daiteke. Zergadunek eta ordezkari profesionalek programa berdina dute. Aitorpena eskuz, informazio fiskala deskargatuz edo ondarearen gaineko zergari dagokion aitorpena inportatuz bete daiteke.

   **ERNE:** autolikidazioa egitean, zergadunek zerrendatu behar dituzte euren titulartasuneko ondasun eta eskubide guztiak, 1.5 atalean aipatutakoaren arabera salbuetsita daudenak barne. Ondasun eta eskubideak 3. apartatuko erregelen arabera baloratuko dira.

2. **Transmititzea**:

   Zergadunak: B@kQ edo ziurtagiria erabiliz. Ezin da bidali kontraste datuarekin.

   Ordezkari profesionalak: ziurtagiria erabiliz.

3. **Frogagiriak aurkeztea**:

   Ez da frogagiririk aurkeztu behar. Aurkezpena amaitzen da aitorpena internet bidez bidaltzen denean. Dena den, preskripzio epeak dirauen bitartean, beharrezkoa da gordetzea bai ondasun eta eskubideen nahiz zor eta obligazioen titulartasun zein balorazioari buruzko frogagiri eta egiaztagiriak, eta bai autolikidazioetan jasotzen diren kenkarienak.

Azkenik, autolikidazioaren emaitzaren ordainketari dagokionez, **ordainketa** egiteko modalitate nagusia helbideratzearena da. Modalitate honetan, zerga zorra 2026ko uztailaren 3an kargatuko da zergadunak bere autolikidazioan adierazitako kontuan. Dena den, zorraren ordainketa aurreratu daiteke ordainketa-pasabidearen bitartez, helbideratzearen eguna noiz iritsiko zain egon gabe.

Ordaintzeko beste modalitate bat ordainketa-gutuna da. Horretarako, entitate finantzarioak baliabide horrekin ordaintzeko eskaintzen dituen hainbat bide erabil daitezke (leihatila, kutxazain automatikoa, banka elektronikoa…). Ordainketa gutuna ZergaBidea plataforman lortzen da, edo Departamentuko herritarren arretarako bulegoetan.

## 2. Zerga oinarria

Zergadunaren ondare garbiaren balioa izango da zerga oinarria.

**Ondare garbia** bi hauen arteko emaitzak emango du:

– Zergadunarenak diren ondasun eta eskubideen balioa.

– Ondasun izaerako kargak, ondasun eta eskubideen balioa gutxitzen badute, eta zergadunak bere gain hartu behar dituen zorrak.

Ez dira kenduko ondasun salbuetsiei dagozkien zamak eta kargak.

Ez dira kengarriak izango:

– Ondasun edo eskubide salbuetsiak eskuratzeko hartutako zorrak eta obligazioak. Salbuespena partziala denean, zorren eta obligazioen zati proportzionala izango da kengarria, hala badagokio.

– Abalatutako kopuruak, harik eta, zordun nagusiaren aurkako eskubidea baliatu eta hark huts egiteagatik, abal-emailea zorra ordaintzera behartuta geratu arte. Betebeharra solidarioa bada, abalatutako kopuruak ezin izango dira kendu eskubidea abal-emailearen aurka baliatu arte.

– Ondasun bat eskuratzean geroratutako prezioa bermatzen duen hipoteka, prezio geroratua edo zor bermatua kengarria izatea eragotzi gabe.

Ondasunak edo eskubideak eskuratzeko hartutako zor eta obligazioengatik aplikatzen den kenkaria ezingo da izan inolaz ere zerga honen arauen arabera haiei dagokien balorazioa baino handiagoa.

Zerga ordaintzeko obligazio erreala dagoen kasuetan, bi hauek bakarrik izango dira kengarriak: lurralde espainiarrean kokatuta dauden, bertan erabili daitezkeen edo bertan bete behar diren ondasun eta eskubideei dagozkien zamak eta kargak, eta zerga honi lotutako ondasun eta eskubideetan inbertitutako kapitalengatik sortutako zorrak.

**LABURPENA:**

+ Ondasun eta eskubideen balioa

- Karga eta grabamen errealak, eta zorrak eta betebehar pertsonalak

---

Ondasun garbia

## 3. Nola baloratzen dira ondasunak, eskubideak eta zorrak?

Aurretik ikusi den bezala, ondoko hauek baloratu behar dira zergaren zerga oinarria kalkulatzeko:

– Zergadunaren titularitateko ondasun eta eskubideak.

– Zergari lotutako ondasun edo eskubideen balioa murrizten duten karga errealak.

– Zergadunaren erantzukizunari lotutako zor eta betebehar pertsonalak.

Kontzeptu horiei guztiei dagozkien balorazio arauak, ondarean gaineko zergan aurreikusitako berberak dira (ikus ondarearen gaineko zergari dagokion gidaliburuaren 3. atala).

## 4. Oinarri likidagarria

Oinarri likidagarria kalkulatzeko, zerga oinarriari 700.000,00 euro kendu behar zaizkio minimo salbuetsiaren kontzeptuan.

Oinarri likidagarria = Zerga oinarria – 700.000 €

## 5. Kuota osoa

Kuota osoa kalkulatzeko, ondorengo eskala aplikatu behar zaio oinarri likidagarriari:

| Oinarri likidagarria. Muga eurotan | Kuota osoa | Oinarri likidagarriaren gainerakoa. Muga eurotan | Tasa (%) |
|---|---|---|---|
| 3.200.000 | 0 | 3.200.000 | 1,70 |
| 6.400.000 | 54.400 | 6.400.000 | 2,10 |
| 12.800.000 | 188.800 | 1.700.000 | 2,50 |
| 14.500.000 | 231.300 | Hortik aurrera | 3,50 |

Dena den, **kuota osoari muga** bat ezartzen zaio:

Zergari obligazio pertsonala dela-eta lotuta dauden zergadunen kasuan, zerga honen kuota osoa, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren eta ondarearen gaineko zergaren kuota osoekin batuta, ezingo da izan pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zerga oinarri orokorraren eta aurrezpenari dagokionaren 100eko 60 baino handiagoa. Ondorio horietarako:

a) Ez da kontuan hartuko zerga honen kuota osoaren zer zati dagokien ondare elementuei haien izaera edo xedeagatik Gipuzkoako Lurralde Historikoko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 3/2014 Foru Arauak zergapetutako etekinak sortzeko gai ez direnean.

b) Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zerga oinarriari gehitu behar zaizkio urtarrilaren 17ko 3/2014 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarenak, bosgarren xedapen gehigarriko 1. apartatuan aipatzen dituen dibidenduak eta mozkin-partaidetzak.

c) Hiru zergen kuoten baturak aurreko muga gainditzen badu, fortuna handien gaineko aldi baterako elkartasun zergaren kuota murriztuko da adierazitako mugaraino. Hala ere, murrizketa ezingo da izan 100eko 80tik gorakoa.

Familia unitate bateko kideek pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan batera tributatzea aukeratu badute, zerga horren, ondarearen gaineko zergaren eta fortuna handien gaineko aldi baterako elkartasun zergaren baterako kuota osoen muga kalkulatzeko, kide horiek azken bi zerga horietan sortutako kuota osoak batu behar dira. Murrizketa aplikatu behar bada, zenbatekoa zergadunen artean hainbanatuko da, zerga honetan bakoitzari dagokion kuota osoaren proportzioan, aurreko apartatuan xedatutakoa eragotzi gabe.

Atal honetan aurreikusitako kalkulua egin ahal izateko, zergadunaren pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren oinarriari gehitu behar zaio zergadunak jabetza soilean dituen ondasunen etekinen zenbatekoa, haien gozamena hauetako bati esleitu badio:

a) Bere ezkontideari, izatezko bikote-lagunari, aurreko edo ondorengo ahaideei, bigarren graduko zeharkako ahaideei (izan ahaidetasun harremana odolkidetasuna, ezkontza, izatezko bikotearen eraketa, edo adopzioa), edo Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauak 42. artikuluaren arabera lotuta dagoen pertsona edo entitateei.

b) Hirugarren bati, zergaren sortzapena gertatu aurreko bost urteetan.

Kasu batean zein bestean, eta besterik frogatu ezean, ondasun horien gozamenari dagokion urteko etekina hau dela ulertuko da: ondasunon jabetza osoa dela-eta konputatu beharreko balioaren 100eko 5.

Halaber, zergadunaren ondarean sartuko dira zergadunak zergaren sortzapena gertatu aurreko bost urteetan kosturik gabe eskualdatutako ondasunak, salbu eta egiaztatzen denean dohaintza-hartzaileak ondasun horien balioaren pareko zenbateko batengatik tributatzen duela fortuna handien gaineko aldi baterako elkartasun zergan. Arau hau ez zaie aplikatuko ondasunei, baldin eta apirilaren 7ko 3/2004 Foru Arauak, irabazi asmorik gabeko entitateen zerga erregimenari eta mezenasgoaren aldeko zerga pizgarriei buruzkoak, 18. artikuluan aipatzen dituen entitateen esku jartzen badira kostu gabe.

## 6. Kuota likidoa

Kuota likidoa kalkulatzeko, kuota osotik gutxitu behar da atzerrian ordaindutako zergengatik aplikatutako kenkarien zenbatekoa, eta ondarearen gaineko zergarengatik ordaindu beharreko kuota.

Kuota likidoa ezin da izan inoiz negatiboa.

Ordaintzeko emaitza 2026ko uztailaren 3an kargatuko da kontu korrontean.

**LABURPENA:**

\+ Kuota osoa

\- Atzerrian ordaindutako zergen kenkaria

\- Ondarearen gaineko zergarengatik ordaindu beharreko kuota

Kuota likidoa

### 6.1 Atzerrian ordaindutako zergen kenkaria

Zergak ordaintzeko obligazio pertsonala dagoenean, zergaren kuotatik ondorengo bi zenbatekoen artean txikiena kenduko da, ondasunak lurralde espainiarretik kanpo egoteagatik edo eskubidean handik kanpo erabiltzeagatik:

– Zergan konputatzen diren ondare elementuei antzeko zerga baten ondorioz atzerrian ordaindutako zenbateko efektiboa.

– Zergaren batez besteko tasa efektiboa atzerrian zergapetutako oinarri likidagarriaren zatiari aplikatuz atera den emaitza:

$$\text{Batez besteko karga tasa} = \frac{\text{Kuota osoa}}{\text{Oinarri likidagarria}} \times 100$$

## 6.2 Ondarearen gaineko zergarengatik ordaindu beharreko kuotaren kenkaria

Aurreko apartatuetan xedatutakoaren arabera kalkulatutako kuotatik kendu egingo da sortzapen horri dagokion ondarearen gaineko zergaren kuota.

Inola ere ez da itzuliko aurreko paragrafoetan aurreikusitako kalkuluek eman dezaketen emaitza negatiboa.